

ASTE NAGUSIKO DJ GAZTEEN IV. ERAKUSTALDIA

DJ gazteen musika-produkzioa ezagutzera ematen laguntzeko helburuarekin, Donostia/San Sebastián Festak erakundeak (Gazteriako udal sailaren eta FNACen laguntzarekin), Aste Nagusiko DJ gazteen IV. Erakustaldia Kurasaaleko terrazetan egitea proposatzen du. Eta horren haritik honakoa adierazten dute.

Erakustaldiko parte-hartzaileen aukeraketarako Oinarriak

Izen ematea

1. 16 urte baino gehiagoko eta 30 baino gutxiagoko (1989 eta 2003. urtea bitartean jaiotako) edonork parte hartu ahal izango du, bai bakarka, baita taldean ere. 18 urte baino gutxiago dutenek amaren, aitaren edo tutorearen baimena aurkeztu beharko dute.
2. Izangaiek 30 minutuko (gehienez) bideo-saioa grabatuko dute. Bertan DJ-a **bera eta bere lana publikoarengana nola zuzentzen dituen** ikusi ahal izango da, musika aukeraketa, nahasketa, eta bestelako trebetasunak ere **erakutsi** beharko ditu. Musika estiloan ez da inolako mugarik izango (House, Techno, Deep, Minimal, EDM, reggae dance, komertziala...) Denak balio dute, baita nahasten ez dutenenak ere. Egiten den musika aukeragatik baloratuak izango dira.
3. Izen-emateak **apirilaren 16tik maiatzaren 12ra** (biak barne) egingo dira, www.donostiakultura.com/festak web orrian argitaratutako inprimakian eskatutako datuak betez: Izen-abizenak, izen artistikoa, harremanetarako telefonoa, e-maila, herria, eta jaioteguna. Bertan dagokion atalean igoko da aurkeztu nahi den saioaren bideo grabaketa. Eskatzen dena DJ-aren lana ikusteko eta baloratzeko bideoa denez, programak ez du onartuko audio artxiboen igoerarik.

Erakustaldiko parte-hartzaileen aukeraketa

1. Epaimahaia honako hauek osatuko dute:
 - Musikako irratikate nagusietako ordezkariak (Gaztea, LOS40 San Sebastián, MegaStarFM...)
 - Donostia / San Sebastián Festak erakundeak ordezkari batek
 - DJen munduarekin lotutako hiru pertsonak

Epaimahaiak 8 izangaien saioak aukeratuko ditu 2019ko Aste Nagusian "Kurasaaleko Terrazetan" festa-gunean parte hartzeko (egunak hautatutako pertsonekin adostuko dira). Saio hauetako 4, DJ donostiarrek aurkeztutakoak izango dira.

2. Epaimahaiak saioak banan-banan baloratuko ditu, honako patroi hauetan oinarrituta:
 - Musika estilo/estiloen aukeraketa
 - Estilo bakoitzeko musika-piezen aukeraketa
 - Nahasketen originaltasuna
 - Teknika
 - Dj-aren jendearenganako jarrera (animazio-maila)

Musika-piezak aukeratzekoan zein dinamizazioan eta animazioan euskararen lehentasunezko erabilera baloratuko da.

3. Lehen aldiz parte hartzen dutenei lehentasuna emango zaie.

4. Epaimahaiak sustatuko du erakusketan emakumeek eta gizonek parte hartze parekatua izan dezaten, eta saiatuko da, ahal izanez gero, genero batek edo besteak plazen % 60 baino gehiago ez hartzea.
5. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
6. Aukeratutako saioen sarbidea Donostia/San Sebastián Festak-en web orrian (www.donostiakultura.eus/festak) jarri ahal izango da.

Erakustaldian parte-hartzea

1. Hautatutako DJek NANen fotokopia eskuratu beharko diote antolakuntzari.
2. Aukeratutako DJek hautaketan aurkeztutako musika-estiloak plazaratuko dituzte Erakustaldian.
3. DJ bakoitzak bere material propioa edo antolakuntzak haren esku jartzen duena erabili ahal izango du saioa osatzeko.
4. Partaide bakoitzeko Erakustaldiko emanaldiak, gehienez, 40 minutu iraungo ditu.
5. Hautagai guztiek, aukeratuak izan ondoren, Erakustaldian parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, baldin eta ez den behar bezala justifikatutako arrazoiren bat gertatzen.
6. Jarrera bortitzen bat, edo gainerako partaideekiko edo bertaratuekiko errespetu falta erakusten duen pertsona zigortzeko, eta kasuren batean, Erakustalditik kanporatzeko eskubidea dauka antolakuntzak.
7. Antolakuntzak emanaldiak grabatu, argazkitan jaso, erreproduzitu eta/edo erakutsi ahal izango ditu, antolakuntzaren beraren helburuetarako erabiltzeko.
8. Erakustaldiko parte-hartzaile bakoitzak jasoko du:
 - 150€ garbi kaxet gisa 40 minutuko emanaldirengatik
 - Parte hartze ziurtagiria
 - 30€-tan balioztatutako Fnac-eko opari txartela
 - Fnac bazkide txartela 2 urterako (15€-tan balioztatuta)
 - Udaleko Gazteria sailaren eskutik Formakuntza ikastaroa DJ profesional batekin Kontadores Gazte Zentroan.

Oinarrien onarpena

1. Oinarri hauek interpretatzeko eta beharrezkoak iruditzen zaizkion egiaztapenak egiteko ahalmena dauka epaimahaiak, parte-hartzaileak hobeto baloratzeko, eta hauei, edozein unetan, eskaeran bildutako informazioa zabaltzea eskatzeko.
2. Jarduera honetan parte hartzeak Oinarri hauek oso-osorik onartzen direla esan nahi du. Oinarriak –hauen helburuak barne– eta antolakuntzak finkatutako emanaldi-ordutegiak betetzen ez dituen edozein parte-hartzaile Erakustalditik kanpo geratuko da automatikoki.